



Hik eta ...

Xabier Yurramendi

Aukera paregabea izan dut HABEK argitaratu duen Antzoki Ilunaren azken lana irakurri eta aztertzeko. Oraingoan, sail honek ahozko prosaren maisu dugun Atañoren Txantxangorri kantariari egin dio leku. Eta honetaz baliatu naiz neu ere hiketaren inguruan zenbait gogoetatan murgiltzeko: hiketaren konparaketa, sailkapen, genero-bereizketa eta abarretan. Honen guztiaren bitartez, Antzoki Ilunaren erabilera didaktikoa nabarmendu nahi nuke, bai testu mailan eta bai hainbat jardun antolatzerakoan ere.

Erregistroak eta hizkerak

Giza harremanak burutu ahal izateko, beste edozein herritar bezala, euskalduna ere bere hizkuntzaz baliatzen da: euskaraz, alegia. Euskara bere hizkuntza bakarra badu ere, elkarrizketak hainbat modutara adierazten ditu, erregistro edo hizkera ugari erabiliz.

Erregistro edota hizkera horiek aldatuta erabiltzen ditu, non, noiz eta norekin ari den hizketan: etxean nahiz kanpoan; hizketan edo idazten; lagunartean edota errespetuzko pertsonen aurrean...

Erregistro edo hizkera bat ala bestea hautatu izanak izango du, bai, isla aditza erabiltzerakoan. Horren ondorioz, lau erataria moldatuko ditu aditzak: zuka, hika, berorika edo xuka.

Azkeneko bi tratamenduok baztertuta ditu gizarteak, nahiz eta xuka Zuberoan oraindik bizirik dagoen.

Dena den, esan beharra dago euskaldun asko direla erregistro bakarraz baliatzen direnak. Hauek, izan ere, forma neutroak erabiltzen dituzte: bigarren pertsonarako zu tratamendua; eta bazter batean uzten dute hikako tratamendua, ikasi ez dutelako edota etxean hika hitz egiteko ohiturarik ez dutelako.

Bestalde, hiketaren inguruko literaturan dauden terminoak asko izateak –*aditz etikoa, alokutiboa, hitanoa*–, gauzak erraztu beharrean nahasketa eta noraeza dakarzkio euskaldunari.

Hiketaren sailkapena

Horrexegatik, hain zuzen ere, nahi dugu hiketa bi eratara bereizi: hiketa zuzenekoa eta zeharkakoa edo alokutiboa (alokutibo: solaskidea aditzean islatzen denekoa, hiztunak, mintzagaiko informazioaz gain, solaskidea ere mintzagaian txertatu duelako).

Hiketa zuzenekoa

Hi nahiz *hiri* nahiz *hik* pertsona berezkoa duten aditz-formetan bakarrik agertzen da hiketa zuzenekoa. Beraz, zukako aditz batuaren paradigmatan ageri diren hikako forma guztiak dira zuzenekoak.

(5.22) *Larri eta arnaska habil! Apusturen bat egin al duk? (hi / hik)*

(9.26) *...zeinek hortzak erakutsia ez zaik faltako. (hiri)*

(13.13) *Heurea duan lurrean ezin bahaiz bizi, besterenaren bila abiatu? (hik / hi)*

Zeharkako hiketa edo alokutiboa

Hi nahiz *hiri* nahiz *hik* pertsona berezkoa ez duten aditz-formetan agertzen da zeharkako hiketa. Beraz, zukako aditz batuaren paradigmatan ageri ez diren hikako forma guztiak dira zeharkakoak.

Zeharkako aditz-forma horiek guztiak alokutiboak dira: solaskidea mintzagaian sartzen dutenak, alegia. Entzulea mintzagaian sartze horrek aditz-forma aldarazten du.

(7.1) *Gauza den arte lan egin behar dik gizonak*

du (zer-nork) + hirekin ari nauk / (naun) ⇒ dik / (din) (zer-nori-nork)

(8.4) *Gure azken urteak goxatzeko, ama eta biok ez gaituk alferrik nekatu hi hazten!*

gara (nor) + hirekin ari nauk / (naun) ⇒ gaituk / (gaitun) (zer-nork)

Gero ikusiko dugunez, hiketa zuzenekoa eta zeharkakoa elkarrengandik bereiztea oso garrantzitsua da. Helburu horixe du Atañok idatzi eta Zubimendik *Antzoki Ilunarako* egokitu duen *Txantxagorri kantaria* liburuaren zati baten hustuketa honek.

Beraz, eranskinean bi zutabetan bereizita daude hika zuzenekoa eta zeharkakoa. (Aldamenean doazen zenbakiek orrialdea eta lerroa adierazten dituzte.)

*Nahiz eta eranskineko zutabeetan argi samar geratu bereizketa, horietako hainbat aditz-forma praktikan nahasgarriak izaten dira askotan. Begi zorrotzak berehalaxe antzemango dio zutabe batean zein bestean koka daitezkeela, baina esanahi ezberdinekin.

Adibidez:

hiketa zuzenekoa	hiketa zeharkakoa
zer-nork	nor
duk (duzu) (5.23)	duk (da) (6.24)
dituk (dituzu) (5.29)	dituk (dira) (12.15)

Baita beste hainbat aditz, taulan (hika zuzena) azaltzen ez direnak

zer-nori-nork	zer-nork
dik (dizu)	dik (du) (7.1)
nian (nizun)	nian (nuen) (8.27)
diat (dizut)	diat (dut) (9.12)
zian (zizun)	zian (zuen) (12.17)

Pluralean, Euskaltzaindiaren arauei segituz gero, ez lukete nahasgarri gertatu beharko:

dizkik (dizkizu)	ditik (ditu) (36.10)
nizkian (nizkizun)	nitian (nituen) (29.12)
dizkiat (dizkizut)	ditiat (ditut) (13.11)
zizkian (zizkizun)	zitian (zituzten) (32.4)

Orain arteko erabileran oinarrituta, nahastuta erabili izan direnak

zer-nork	nor
huen (uan) zenuen (6.2)	zuan (uan) zen (12.11)
hituen (itun) zenituen (68.23)	zituan (itun) ziren (9.17)

zer-nori-nork	zer-nork
diate (ditek) dizute (12.15)	ditek (ditek) dute (7.9)

Hiketa eta genero-bereizketa

Maiz esan ohi da euskarak ez duela genero-markarik. Eta hor ibili izan gara genero-bereizketa egiteko hainbat asmakizunetan. Lekuko, hona hemen zenbait adibide: jainkosa, aktorea, alargunsa, neska-lagun...

Horrelakoetan hankamotz gelditzen zaigu; bestetan, berriz, euskarak poliki adieraz dezake genero-marka: hika ari garela, aditz-forman esaterako.

Beraz, zuka hitz egitean ez bezala, hika egiten dugunean, generoa bereiz daiteke. Izan ere, aditzak berak erakutsiko digu solaskidearen generoa; ez, ordea, hiztunarena. Orduan, toka edo noka ari garela esan ohi da.

Noiz toka eta noiz noka, ordea? Gai eztabaidagarria izan arren, eta Mitxelenaren esanak aintzat harturik, esan liteke emakumeak ez beste izaki guztiak –arrak, emeak nahiz sexurik gabeak– “arrak” balira bezala hartzen dituela euskarak. Hortaz, emakumezkoei noka eta gainerakoei toka.

Gai hau azaltzeko, ezin hobeto datozkigu Atañoaren liburutik Joxe Ramon Zubimendik egokitutako ondoko pasarteak:

(125. 9) *Mundura etorritako hankagorri bakoitzaren bataio ondorenean, handik berrogei egunera, “elizako sarrera” esaten zitzaion ohitura izaten zuan; eta arratsaldean, berriz, auzoko andre guztiak biltzen zitian jaio berriaren amaren sukaldean. Bilera horri esaten genioan atsolorra.*

(125.18) *Aizak, Joxe! Jakingo duk, noski, gaur arratsaldean inguruotako andreak sukalde honetan egingo dutela beren bilera, hire emaztea ere tarteko dutela. Ez badakik ere, honelakoetan ohitura duk haurraren aita izatea emakume guztien zerbitzari. Ez duk lan izugarria: txokolatea eta pattar goxoa; hori duk usadioa.*

Aditz-markari bakarrik begira jarriko bagina, ezin asma genezake nor den hiztuna: gizasemea ala emakumezkoa? Solaskidea, berriz, garbi asko adierazten da, aditz-markari erreparatuz gero, gizonezkoa dela; eta horrexegatik ari zaizkigula toka.

Alderatzeko, ikus ditzagun hurrengo pasarteak:

(126.18) (1) *Hauxe dun sukalde txukun eta apaina! Ederki antolatuta zegan!*

(2) (maliziaz) *Bai; arreoko gauzatxoak! Baina, bizi bagara, hemen-dik urte batzuetara hitz egingo dinagu!*

**Txokolatea atera niean; eta hura hartu ondoren, pattarrari ekin ziotenean, batek keinu eta besteak atximur, han hasi zitzazkidaan adarra jotzen; emakume ezkondua baino adar-jotzaile hoberik ez baitago munduan.*

(1) *Aizan, Maria! Hi heu polita haizenik ez dinagu ukatuko; baina hauxe senar polita aukeratu dunana!*

(2) *Bere begi beltz horiekin, idisko bizkorra zirudin!*

(1) (barrez) *Txokolatea egiten irakatsi behar dion! Mehegia egin zigun, aukeran!*

(2) *Aizan! Lodixeagoa eginda pattarrarekin bultza nahi al dion? Txokolata honek ez zeukanan ezeren aitzakiarik! Ai, egunero hone-lakoxea balego, zerbitzari eta guzti!*

(1) (barrez) *Mihi horri galga pixka bat emaion, Mañontzi! Ez baitzain pattar goxorik gustatzen hiri! Zer, guk edango dugun beldurrak al hago? Lasai, neska; gaur denontzat nahikoa badinagu.*

(2) *Bejondeinala, aizan! Honez gero, hamar kopaxka hustu ditun behintzat-eta!*

*(1) (barrez) *Hauxe ere bada, Joxe! Indar gehiegiko pattarra atera diguzu.*

(2) *Aizan, Maria! Mutua al dun hire senar hau? Oraindik ez zionat hitzik ere entzun!*

Luzetxoa aurreko pasartea, beharbada. Ezin egokiagoa, ordea, aurrez esandakoa baieztatzeko: alegia, hirugarren eta azkenaurreko lerroetan ez bestetan emakumezkoak direla solaskide; eta horrexegatik dihardute-la noka.

Hiketa hasiz gero, hiketa segi beharra

Euskaltzaindiak bere *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II* liburuan hala dio:

“... hizketa laguna **hika** tratatu edo **zuka** tratatu, aditzaren erabilerari begira, ondorio desberdinak ditugu: izan ere, behin hika hasten bagara, alegia hizketa laguna **hi** bada, lagunarteko errejistroaz baliatu beharra dago. **Zu**-ka tratatzeak, berriz, errejistro neutroari bide ematen dio. Hortaz, *hi etorri haiz, baina besteak ez dira etorri ez legoke zuzen; hi hautatu ondoren, beraz lagunarteko errejistroan hasi ondoren, ez delako zilegi errejistroz aldatzea. Honela behar genuke: *Hi etorri haiz, baina besteak ez dituk/n etorri*. Edo, bestela, errejistro neutroaz baliatuz: *Zu etorri zara, baina besteak ez dira etorri*. Beraz, lagunarteko errejistroa ezagutzen ez dutenek (...) ez dute **hi** hautatuko, **zu** baizik.”*

Euskaltzaindiaren aipuari kasu eginez gero, ezin genezake bestela joka. Baina, esandakoaren ondorioz beste galdera batzuei dago erantzun beharra: Hika hasiz gero, den-dena hika egin behar al da? Zer egin perpaus txertatuekin?

Orain ere Euskaltzaindira jo behar argitasunaren bila. Halaxe dio Euskaltzaindiak arestian aipaturiko liburuan:

“... badirudi erabilera jatorrenari jarraituz behintzat, perpaus txertatuetan ez dela forma alokutiborik agertzen ahal. Beraz, *Ez zioat esan Andoni etorri du(k)ala* ez litzateke zuzena, aditz alokutiboa (*etorri duk*) perpaus txertatu batean dagoelako. Baina zuzen legoke beste hau: *Ez zioat esan Andoni etorri dela*. “

Hortxe dago “koxka”, irakurle: noiz erabili eta noiz ez.

Horrexegatik genion, hain zuzen ere, lan honen hasieran, berebiziko garrantzia zuela bi hiketa mota bereiztea: zuzena eta zeharkakoa, edo, bestela deitua, alokutiboa.

Euskaltzaindiarekin bat, Pello Esnaiek eta J. R. Zubimendik ondoko araua ematen dute argitara beren *Idazkera-liburuan*:

“Hika aritzekotan, hikako aditz-formak erabili behar dira menpeko

perpau txertatueta ere, baldin eta aditz-forma horiek hika zuzene-koak badira. Zeharkako hika darabilten aditz-forma guztiak, ordea, hizkera neutrorra (zu formara, alegia) aldatu behar dira menpeko esaldietan.” (274. or.)

Behin eta birritan, *Txantxangorri kantaria* izango dugu bidelagun teo-riaren ilunpetik atera eta argitasuna iristeko. Eta, oraindik bizkorrago ibiltzeko, esaldiak bitan banatzen ahaleginduko gara: zeharkakoak, batetik; zuzenekoak, bestetik.

Hiketa zuzenekoa:

- (5.22) *Arratsalde on hiri ere, Ataño! Ongi etorri! Larri eta arnaska habil! Apusturen bat egin al duk?*
- (8.3) *Heure buruari bakarrik begiratu behar badiok, bahoake, motel! Gure azken urteak goxatzeko, ama eta biok ez gaituk alferrik nekatu hi hazten! Heurekaioa alaena, hoa nire begien aurretik!*
- (9.19) *Eskatzen didaan hau inoren onerako bada, bihoa! Ai, baina erruki haut! Aitona gizagajo honen bizkar jolas eta barre eginaraziz txan-ponak irabazi nahi badituk, har bihurtuko ahal zaitzik denak!*

Zeharkako hiketa:

- (9.29) *Hamaika gauza ikusitakoa nauk, izan ere! Lanpetik burua ezin jaso-rik dabilen baserritar gizagajoa, euskaldun garbia delako, denen jostailu eta barregarri darabilzue. Pertsona ez balitz bezala edozer bihurrikeria egin ondoren, eraman handikoa delako, !Es casero! esanda egina zegok.*
- (10.17) *Hamaika iseka gaizto egin diguzue, behintzat. Geure buruak barre- garri jartzen ari gaituk: berriro ere egongo gaituk gauden lekuan! Baina egia esan, euskalduna ez duk ezertan ere beste horiek baino eskasago.*

Orain arte hiketaz esan duguna ulertu duzun jakin nahi baduzu, hemen- te duzu ariketa aproposa. (Erne!, bi motakoak jarriko ditugu-eta).

- (8.25) *Eskerrik asko, motel! Banaizela/banauala oroitzea ere ez duzu/duk gutxi egin; neska gazteren baten ondoren hembilela/zenbiltzala uste nuen/nian-eta. Kontu batzuk esatea besterik ez baduk/baduzu nahi duanean/duzunean has hinteke/zintezke: egokiera hoberik ez duzu/duk askotan harrapatuko. Ahal diadana/dudana egiteko gupi- darik ez daukat/zeukaat.*

Hasi, bai; baina bukatu ezinean bazabiltza, aurrera egin aurretik emai- ozu birpatsatxo bat aldeztu aurretik esandakoari.

Gai honi amaiera eman eta zuen arreta biztarazi nahirik, ikasgelan edota norberak egiteko beste ariketatxo bat proposatu nahi dizuet:

Hurrengo lerrootan, hiketa non,^{*} noiz, nori eta nola erabili izan den adierazten duten eredu batzuk aldatu ditut *Idazkera-liburuatik* hona; baita, eredu hauekin batera, *Txantxangorri Kantaria* liburutik *Antzoki Ilunarako* egokitutako zenbait pasarte ekarri ere. Hauxe

duzue lana, beraz: adibideak erduei lotzen ahalegindu, ahal bada behinik behin.

Ereduak

- 1 Seme-alabek ez diete hika hitz egin behar gurasoei, beraz. Ezta gurasoek haurtxoei ere. Senide artean, berriz, lekuan lekuko ohitura izaten da nagusi. Zenbaitek kalean bakarrik egiten du hika; beste askok, ordea, anai-arreben artean ere bai.
- 2 Egoera-aldaketak hizkera-aldaketa ere eragin dezake: ezkongaietan elkarrekin hika aritzen ziren neska-mutilak, lehen behintzat, zuka hasten ziren senar-emazte bihurtu orduko. Bestelakorik ere izango zen, noski, nabarmenkeriez gainera.
- 3 Gizalegeak ere mugatu ohi du hitanoaren erabilera: morroiak ez dio hika hitz egiten nagusiari, ezta neskameak etxeakoandreak ere. Nagusi-etxeakoandreek, aldiz, hika nahiz zuka egiten diete euren menpekoei.
- 4 Ezezagunei zuka hitz egiten zaie; deabruari, hika; eta erleei, zuka.
- 5 Nork bere buruari hika hitz egin ohi dio.
- 6 Jendaurreko mintzaldiak zuka egin behar dira beti; baita komunikabideetako elkarriketak ere. Literaturan, antzerkian eta zineman, ordea, hika mintza daitezke kontalaria ez beste guztiak; zilegi ez ezik, egokiena ere horixe baita zenbait elkarriketa girotzeko.

Adibideak

4. atala

- (48.10) Joxeren aita: *Non da Joxe? A, hor al haiz? To pitxar hau eta, korrika batean, ur freskoa ekartzak iturritxotik!*
- (51.1) Andrea: *Aizu Santiyo! Gure zakur lauso horrek badu katurren bat haritzaren buru adarrean.*
- Gizona: *Bai, zerako katua! Ez ote da, gero, gure marrubitarata etorri den auzoko mutil katapurtxin hori?*
- Andrea: *Gizagajoa! Bidal ezazu hortik zakur tzar hori, eta utziozu ume gaixoari etxera joaten.*

5. atala

- (58.14) Joxeren aita: *Bejondeiala, motel! Aita bera ere zerbait baduk bertso-lanetan; baina ez zekiat semea ez ote zaion gailendu behar. Epelak sartu dizkidak, baina bapo zegok, motel!*
- (...)
- Bikarioa: *Oraindik bizarrik nabarmendu ez zaion ume mukizu batek aitari jartzeko bertsoak al dituk horiek?*

*Errespetu gehiago behar zioz semeak aitari!
Laineza ematea ez zegok ongi!*

Joxeren aita: *Ezagun du berorrek seme-alabarik ez duela, bikario jauna. Seme-alabak benetan maite dituen aitak, nor baldin bada, bera baino gehiago nahi lituzke seme-alabak. Eta ez dakit gure Juan Cruz hau ez ote datorren ni baino gehiagoa bertsoan. Niretzat pozbide eta harrobide da. Nolako enborra, halako ezpala esan ohi da; eta nolakoa ote da horrelako ezpalak ateratzen dituen enborra? Bejondeiola! Ondorengoak badituz!*

6. atala

(70.17) Joxeren ama: *Mesedez, Bixente! Sukalondoan, zakarkeria eta purrustadarik ez! Bestela, seme-alabek alde egin, eta bakarrik geratuko gara-eta!*

Joxeren aita: *Amen, hala bedi! Zuri ezetziz esaten ez dut oraindik ikasi!*

9. atala

(105.4) Inaxiren ama: *(oihuka) Inaxi! Inaxi! (apalago) Non sartu ote zait ume hori? Dagoen lekuan dagoela, ez dun bakarrik egongo, ez! Hor izango din, aldamenean, beste horietakoren bat! Inoren aurrera azaltzeko gauza ez den kaskarren bat, noski! (oihuka) Inaxi! Inaxiii!*

Inaxi: *Ama oihuka ari zait, eta agur! Bihar arte, Jainkoak nahi badu!*

(...)

(109.23) Mutila: *Etxe atzean zabalik dagoen leiho txiki hori ikusten al duk? Hor zegok, nonbait hik behar duan biga gazte hori. Hotz-beroak ez dik izutzen; beti zabalik edukitzen baitu leioa. Sartu nahi baduk, nire bizkar gainera igo hinteke.*

Harroa: *Igo nahi al dudan!? Bai, motel; horixe baietz! Pozik, halere! A zer sustoa eman behar diodan panpoxa horri!*

(...)

Harroa: *Hau duk simaur-usaina, hau, datorrena hortik!*

Mutilla: *Biga gazte batek arrosa-usaina edukitzea uste al huen, ba?*

(...)

Harroa: *(aieneka) Ooo! Otx! Atx! Otx! Behi arraio hori,*

*ostikoka ari bahaiz! Baina non sartu naiz ni?
Simaur usaina zegoela? Ez duk harritzekoa,
ukuiluan nagok-eta! Otx! Atx! Behi urde hori! Lipu
beltzak hilko ahal hau! Otx! Atx!*

(...)

(110.21) Nagusia: *(errukituta) A, gizagajoa. Hi al hintzen? Biga gaz-
teren baten bila etorrira, behi zaharren artera ero-
ri? Hi aurretik bidali hauenak, hark merezi likek,
hark! Hator, gizajo hori, hator sukaldera, kristaua-
ren itxurarik ez daukak-eta!*

(...)

Alaba: *(desairez) Mutil astaputz hori al zen, horrelako
zalapartarekin? Ukuiluan bertan, behien ondoan
lotuta, edukitzeko hobe dago!*

Nagusia: *(umorez) Aizan, gustokoa bazain eta zerekin
mantendurik badun, bertan utziko dinagu! Mutilak
maite hauela ikusia zegoen! Idisko polita dun, gai-
nera!*

Alaba: *(irainduta bezala) Mutil txoro, egoskor, kankai-
lu horrentzat nagoela uste al duzu, aita?*

Harroa: *(haserre) Ai, zer markesaren alaba! Begira, gero,
errege etorri!*

(...)

Eta hementxe uzten ditugu hauen komeriak eta bai gure "berriketaldia" ere. Sakondu nahi izanez gero, badakizue nora jo. Ez zaizue damutuko, alajaina!

Hiketa zuzenekoa			
Zubimendik egokitua	Atañoek erabilia	zuka	non
habil	abil	zabiltza	5.23
*duk	dek	duzu	5.23
emaiok	akiok	emaiozu	5.28
*dituk	dituk	dituzu	5.29
*huen	uan	zenuen	6.2
daukak	daukak	daukazu	6.6
ezidak	etzidak	ezidazu	7.4
hator	ator	zatoz	7.27
badiok	badiok	badiozu	8.4
bahoake	baoake	bazoazke	8.4
hoa	oa	zoaz	8.6
henbilela	abilela	zenbiltzala	8.26
duanean	dekanean	duzunean	8.28
hinteke	eike	zintezke	8.28
diok	diok	diozu	9.1
bejondeiala	bejondaikela	bejondeizula	9.4
diguk	diguk	diguzu	9.4
duala	dekala	duzula	9.12
didaan	didaken	didazun	9.19
haut	aut	zaitut	9.23
badituk	badituk	badituzu	9.22
zaizkik	zaizkik	zaizkizu	9.22
bahu	baue	bazenu	9.25
ez zaik	etzaik	ez zaizu	9.27
didak	didak	didazu	11.13
galdeiek	galde hakiak	galdeiezu	12.14
*diate	ditek	dizute	12.15
bahago	baago	bazaude	12.26
duan	dekan	duzun	13.13
bahaiz	baaiz	bazara	13.14
zieran	zieren	zien	18.15
bahindu	baiñu	bazintu	24.19
hintzela		zinela	24.20
bahintz	baintz	bazina	24.20
hintzen	intzan	zinen	24.21
itzak	itzik	itzazu	31.20
haute	aute	zaituzte	31.28
dauzkak	dauzkak	dauzkazu	35.32
haugu	augu	zaitugu	36.1
hituenik	ituanik	zenituenik	36.3
haizela	aizela	zarela	36.6
haudanean	haudenean	zaitudanean	37.1
hindukete	inuteke	zintuzkete	37.6
dituanerako		dituzuherako	37.32
dioala	diokela	diozula	38.2
gauzkak	gauzkak	gauzkazu	38.7
ekartzak	ekartzak	ekartzazu	48.11
diek	diek	diezu	54.3
hadi	adi	zaitez	56.32
*hituen	itun	zenituen	68.23

Hiketa zeharkakoa			
Zubimendik egokitua	Atañoik erabilia	zuka	non
zegok	zegok	dago	6.12
bazirudik	bazirudik	badirudi	6.18
zeukaagu	zeukagu	daukagu	6.21
*duk		da	6.24
zaiok		zaio	6.25
diagu	diegu	dugu	6.26
ditiat		ditut	6.31
*dik	dik	du	7.1
ziok	ziok	dio	7.5
ditiagu		ditugu	7.8
*ditek	ditek	dute	7.9
ez zegok	Etzeok	ez dago	7.18
gaituk	gaituk	gara	8.5
*nian	nin	nuen	8.27
baduk	bada	bada	8.28
*diat	dit	dut	9.12
zidaan	zidaken	zidan	9.14
*zituan	itun	ziren	9.17
zaizkidak	zaizkidak	zaizkit	9.26
nauk		naiz	9.29
duk	dek	da	10.20
zeramak	zeramak	darama	11.30
*zuan	uan	zen	12.11
ninduan	niñun	nintzen	12.13
*dituk	dituk	dira	12.15
*zian	zin	zuen	12.17
neukaan	neukaken	neukan	12.30
*ditiat	dizkit	ditut	13.11
naitek	niotek	naute	13.15
litekek	leike	liteke	14.10
zetozkidan	zetozkidan	datozkit	14.16
naik	niok	nau	14.30
ziguk	ziguk	digu	15.2
nabilek	nebillek	nabil	15.16
banian	banin	banuen	15.18
ez zidatek	etzidatek	ez didate	15.20
zekik	zekik	daki	17.15
zitean	ziteken	zuten	17.18
zitiztean	zizkiteken	zituzten	17.19
ez zekiat	etzekit	ez dakit	19.12
gintuan	giñun	ginen	19.22
genitian	genizkin	genituen	19.23
ziguan	ziguteken	zigun	20.13
bazitekean	bazeiken	bažitekean	21.28
zitian		zituen	22.13
zebilean	zebilleken	zebilen	25.11
nitizkek	nizkikek	nituzke	25.13
zeudean		zeuden	26.13
zigutean	ziguteken	ziguten	26.15

Hiketa zuzenekoa			
Zubimendik egokitua	Atañoek erabilia	zuka	non
ziotean	zioteken	zioten	27.15
nezakek	nezakek	nezake	29.2
nindian	niñun	ninduen	29.11
*nitian	nizkin	nituen	29.12
nagok	niok	nago	29.18
nizkioan	nizkioken	nizkion	29.25
zioagu	diegu	diogu	30.22
ez zitzaidaan	etzaidaken	ez zitzaidan	31.4
likek	likek	luke	31.27
*zitian	zizkin	zituen	32.4
bazeukatean	bazeukateken	bazeukaten	33.3
geniean		genien	33.23
zitzaizkioan	zitzaizkioken	zitzaizkion	34.16
zitzaiean		zitzaien	35.9
ez nekian	ez nekiken	ez nekien	36.3
*ditik	dizkit	ditu	36.10
genian	genin	genuen	36.25
ditiztek	dizkitek	dituzte	37.7
zidatek		didate	37.27
zizkieat		dizkiet	38.31
ninditean	niñuten	ninduten	44.27
niean	nieken	nien	45.1
gaudek	gaudek	gaude	47.18
bazegoan	bazegoken	bazegoen	47.33
zerabiltean	zebilkiteken	zerabilten	59.24
zezakek	lezakek	dezake	60.2
zitzaiguan	zaiguken	zitzaigun	61.20
nindukek	niñuke	nintzateke	61.27
zetozak		datoz	62.4
bazebiltzak	bazebiltzak	badabiltza	62.14
bazekizkitean	bazekizkiteken	bazekizkiten	67.26

Bibliografia

HABE. 1994. *Txantxangorri kantaria. Antzoki Iluna 18.*

Zubimendi, J. R. eta Pello Esnal. 1993. *Idazkera-liburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia.

Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika. Lehen urratsak II.*